


# *ttipi-ttapa*

1991.eko Ekainak 20

64. zenbakia

dohain banatzen da



**San Juan ganean  
sua, ura, mitoak...**



# SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



• **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...

• **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**

• **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**

• **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

**Praktikak:**

Aste bat Eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

**Nor matrikula daiteke?**

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

**EUSKARAZ** eta **ERDARAZ**

CAJA LABORAL  EUSKADIKO KUTXA



## Elkartasunezko jai-giroan!

Alaitasuna, poza, jolasa eta ilusioak gainezka dauzkagun une honetan, Herriarengandik hurbil egon nahi dugu. Herriaren zati bat sentitzen garelako. Horregatik, festa-giroan elkarturik, egun alaiak gozateko aukera, guztiona izan dadila.

**Euskadiko  
Kutxa**



# non - zer

- 
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 9/31 HERRIZ HERRI**  
 Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...  
 Doneztebe, Erratzu, Arizkun eta Saldiasoko bestetako koadernilloa
- 
- 32 ELKARRIZKETA:** "Herrietako maisu-maistrak" Azpilkueta, Doneztebe eta Etxalarko irakasleekin solasean.  
 Pello Apezetxea
- 
- 34 KIROLAK:** Sarako Izarra, goren mailako rugby taldea: Datorren urtean «Honneur» mailan
- 
- 37 HEZKUNTZA:** "Bigarren mailako derrigorrezko Hezkuntza" Lamia Taldea
- 
- 38 MERKATU TTIKIA**
- 

## *ttipi-ttapa*

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 4.500 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** R. Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton, Patxi Petrirena, Olhain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren, AOT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza... **Inprimategia:** Jomisa (Irun)  
*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.



**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa.....088

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe.....450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza.....510248/510573

**KONTSULTAK**

Arizkun.....453039

Gartzain.....580451

Oronotz-Mugaire.....592024

Ituren.....450183

Sunbilla.....450283

Goizueta.....514067

Igantzi.....637755

Arantza.....634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun.....630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea.....614444

Nafarroako ospitalea.....102100

SSko urgentzi zerbitzua.....246750

Virgen del Camino

erresidentzia.....262700

Gurutze Gorria.....226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz.....450242/450342

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

**FUNERARIA**

Lesaka.....637404

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire.....592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra.....630279

Baztanesa.....580129

Leitzarain.....515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo.....580730

Lesaka.....637154

Bera.....630104

**ABERIAK:**

Iberduero.....450335/450336

**Deialdiak**

► **LESAKA**, Ekainaren 20an, arratsaldeko 5etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza batzordearen bilera.

**Botiak**

► **Ekainaren 22-23an**, Lesaka, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Ekainaren 29-30ean** Etxalar, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

**Erakusketa**

► **ELIZONDO**, Ekainaren 14tik 28ra, Ariz-

kunenean, Luis de Veraren margo erakusketa.

**Ikastaroak**

► **ELIZONDO, Sendabelar Ikastaroa:**

Laura Gurbindok emanen duen ikastaro honetan, sendabelarrak biltzeko ateraldiak, dituzten gaitasunak eta nola erabil daitezken azalduko da.

**Noiz:** ekainaren 24tik 28ra eta Uztailaren 1etik 5era.

**Bestak**

► **DONEZTEBE**, Ekainaren 28, 29, 30 eta

Uztailaren 1 eta 2an.

► **ERRATZU**, Ekainaren 28, 29, 30 eta Uztailaren 1 eta 2an.

► **ARIZKUN**, Ekainaren 21, 22, 23, 24, 25 eta 26an.

► **SALDIAS**, Ekainaren 21, 22, 23 eta 24an.

**Animazioa**

► **ERRATZU**

AZKONA  
TALDEA

Kultur Bideetan

Uztailaren 1ean goizeko 11,30etan gazte-txoendako Musika animazioa.

**Bota bertsoa**

**Xabier Silbeira**

**Gaia:** Kurtso bukaera

**Neurria:** Aita izena...

Ekainarekin batera dator kurtso luzeen azkena batzuei poza darie eta besteei negar ta pena. "Bikain" eta "Hagitz ongi" gutxi "ez nahikoa" nabarmena hala ere kurtso bukaera kurtsoaren politena kurtsoak zerbait baldin badauka polita deitzen (a)hal dena.

Kurtsoaren bukaera eta klaseetan iskanbila maisuak ezin eutsi ditula ikasle rebelde pila. Dena gaintitu dutenentzako hartu zorionak mila eta eraman ez dutenentzat kurtso oso borobila: datorren uda kurtso hau baino hobeia izan dadila.



# AGENDA

## Kantaldia

### ▷ ARIZKUN

TXOMIN ARTOLA  
AMAIA ZUBIRIA  
*Kultur Bideetan*

**Ekainaren 22an**, gaueko 10etan Elkartasuna Pilotalekuan.

## Antzerkia

### ▷ ARIZKUN

KUKUBILTZO  
*Kultur Bideetan*

**Ekainaren 24ean**, arratsaldeko 5etan "Umeak gara eta zer!" antzeslanarekin.

## Kondalariak

### ▷ ELIZONDO

KOLDO AMEZTOI  
Ipuin Kondalaria  
*Kultur Bideetan*

**Ekainaren 28an**, eguerdiko 12etan Elizondoko Liburutegian.

## Gastronomia

### BAKAILUA



Maria Jose Portuk emana  
IRUBIDE Jatetxea - LESAKA

**Osagaiak**  
4 lagunendako:

Kilo bat bakailu, 2 tipula, 2 kuxtare tomate prejitua, pi-

killo piperrak, baratxuria eta perrexila.

Kazula bat suan jarri olioarekin. Pixkat berotzen denean tipula xehetua eta baratzuria bota, prejitu eta bakailua paratu su bajuan ezari ezarian egin bere saltsan.

Saltsarik gabe gelditu baltiz, arrai salda bota.

Ondoren, bi kuxtare tomate pixkat utzi eta piperrak eta perrexila azken orduan bakailuaren gainean jarri.

## Baserriko feria



### ▷ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 6.900pzta. **Zerri gizona** (95-100): 183 pzta./kilo bizirik. **Urdamak**: 70-100 pzta./kilo bizirik.

### ▷ BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal Extra.....560  
1.koa.....530  
2.koa.....425

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal Extra.....575

1.koa.....445

2.koa.....450

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkatent idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

**Batzango aretzea**: 650 pzta/kg. Kanal.

### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri

ona: 380-400 Pzta./Kg. Kanal.

### •Aretze tikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak**: urruxak 13.000 eta idixkoak 24.000 Pzta.

**Mestizoak**: urruxak 36.000 eta idixkoak 40.000 pzta

### ▷ BILDOSKIA

•12 kgkoak 450 pzta bizirik

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

ATERPE  
jateixa

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak alokatzen ditugu

Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

LEGARRA

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

GRUPO




ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63





Esteban Apeztegia  
Bandu emailea

- ▶ Zer nahiago, eskola ala bandoa? Eskola. Handik sosa kobratzen nuen eta.
- ▶ Bandoak euskaraz ala erdaraz? Bietara.
- ▶ Francorekin ala orain bizi da hobeki jendea? Orain, noski!
- ▶ Trena ala kotxea? Trena erosoagoa da.
- ▶ Baserritarrak ala karrikakoak? Baserritarrak.
- ▶ ttipi-ttapa ala Hola aldizkaria? ttipi-ttapa.
- ▶ Broma ala seriotasuna? Broma, seriotasuna elizan.
- ▶ Jubilatua lanean ala paseatzen? Lanean.
- ▶ Leitu ala telebista ikusi? Telebista ikusi.
- ▶ Lagunak ala ezagunak? Ezagunak aunitz, lagunak gutti.
- ▶ Jende gaztea ala zaharra? Gaztea eta umore onekoak badira hobe.

## Mano Negra: King of Bongo

Gero eta gorago doaien musika talde berezi hau, hirugarren aldiz egon berria da Bartzelonan. Talde hau ez da iparamerikarra edo inglesa berzte talde on gehienak bezala, hauek gabatxuak bait ditugu. Edo hobeki erranda, Frantzian bizi diren atzerritarrez hornitua, nahiz eta azken bolada honetan Bartzelonan finkatu.

Musika mota aunitz jotzen dute garbi garbi: rock gozoa, pop, hip hop, vals tronpetarantxerak, so-



nido latinoak, rock unibertsala eta Frantzian hain indartua dagoen sonido magrebiak. Musika ongi jo ez ezik, espektakulu berezia dute eszenario ganean.

Muga musikal guztiak hautsiz eta gaindituz, batzuetan Mano Negra tal-

dearen kontzertuek kaos bat dirudite baina lehen mugimendutik azken konpaseraino, dena kontrolatua dago. Rock kontzertuetan gero eta zailago zirudiena, hauek juerga batean lortzen dute. Eszenario gainera dantzazera jendea eramane-

raztea. Multirrazialismoaren eta minorien musika; kontzertu dantza, besta batean.

“King of Bongo” beraien hirugarren diska salgai dago jadanik.

MARIANO



AFRO  
REGGAE  
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.  
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

### ETXEGARAI

#### BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

### ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 - BERA

## OKANE

Haragi, janari-izoztu  
enbutido, yogurt...

SEKULAKO AUKERA  
PREZIO ETA  
KALITATEAN

Kanttonberri 4,  
Tfnoa: 63 00 18

**BERA**



# HONTAZ ETA HARTAZ



Transportes del Bidasoa S.C.L. enpresak nabe berri bat egiten hasiko da Lesakako zubiaren ondoan. Obrak aintzinerara doaz eta desmontetik ateratzen dituzten lurrak Laminaciones de Lesaca S.A. enpresaren anpliazio obretan erabiltzen ari dira



**ttipi-ttapak** inguruko komertzioen laguntzaz zozketatzen zuen Mallorcarako Manoli larzabal-i tokatu zaio. Zerbaki saritua 0651a izan zen eta Lesakako Erosle dendan banatu zen. Maldaerreka bidaia etxeko Josetxo Susperregik eman zuen saria. Zorionak eta Bon voyage!

## “Uxane”-ko ikasleentzat etxebizitza lortzeko tramiteak aurrera darraite

Bederatzi milioietatik heren bat Bortzirietako Udalek ordainduko dute



Nahiko aitzineratuak daude “Uxane” ikasleentzeko zenbait burmuin akasduentzako etxebizitza lortzeko tramiteak.

Horretarako, Udalbaitzan laguntza emateko ahobatekotasuna dago, eta etxebizitza ere aukeratu izan da Legarbigia

karrikako leian kokatua, hain zuzen, lehen solairua eta lorategi eta guzti.

Bederatzi milioi kostako omen da, heren bat Bortzirietako Udal guztien artean ordainduko litzateke, bertze diru kopurua laguntza iturri ezberdinen gain joanez.

### INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.





## LEITZAKO HERRIARI

Jakin arazi nahi dizuegu, jendearen borondate faltagatik, gazteak berriro herrikan kanpora joan beharko dugula. Hau, taldeak ekartzeko dirurik ez da goelako da nahiz eta "Jaiak Jai" taldea sortu zenean jende guztia ados egon dirulaguntza bat emateko. Denek zera esaten zuten: "Bai oso

*ongi iruditzen zait mila pezeta ematea, gainera ez da diru gehiegi eta horrela asteburueta musika jarri badaiteke, ederki!"*

Baina argi dagoenez, hau esan duen jendeak ere ez du dirulaguntzarik eman. Ez dakit zergatik baina horrela gertatu da. Behar bada, beti zeregin hau beste egun bateta-

rako uzteagatik izango da. Guri behintzat horregatik dela sinista gustatuko litzaiguke, oraindik jendearengan konfidantza galdu ez dugunez.

Azkenik, laguntzeko prest zaudeten guztiei, zera esaten dizuegu, utzi perezak alde batera eta pasa zaitezte banketxetik

ahal bezain azkar, ez utzi gerorako. Berdin dio diru kantitatea, denen artean

asko bil daitekeenez. **Animo!**



Leitzako hiru gaztek

## Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

## Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



## S. Semper

### Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAN, Agerra Industrialdean

## ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

## EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



## EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92  
BERA

## SAROBEn okindegia

SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



## Bidasoako Izokiaren Kofradiak beratarrak eta Martiko enpresa, ohorezko kide izendatu ditu

ROMAN HARRIBILAGA

Berako herria eta "Conservas Martiko S.A." enpresa dira Bidasoako Izokiaren Kofradiak izendatu dituen ohorezko kideak, joan den ekainaren 9an erakunde honek Beran egin zuen bere XII. urteroko Kapitulu Orokorrean. Baita ere, "Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais", Irungo La Salle Anaiarte kongregazioa, Osasuna Futbol Taldea eta Donostiako "Akelarre" jatetxearen jabea den Pedro Subijana izan ziren izendatuak ohorezko kide berriak.



Manuel Iriartek eta Pello Martikorenak jaso zituzten aipamenak



Uxaneko ikasleek etxebizitza berria izanzen dute

### Ekitaldiaren garapena

 Bidasoako  
Ehiztari  
eta Arrantzaleen

elkartearen egoitzan harrera eskeini ondoren kofradia ezberdinetako partaideak meza entzutera joan ziren, gero Udaletxean izendapenak egiteko. Ekitaldiari bukaera emateko "Antsonea" jatetxean ospatu zuten bazkaria.

16 kofradia izan ziren guztira Bidasoako Izokia-

ren Kofradiak antolatutako ekitaldian, parte hartu zituztenak hauek zirelarik: Donostiako Gastronomi Euskal Kofradia, Tolosako Babarrunarena, Donibane Lohitzungo Euskal Kor-

tsarioak, Ezpelatoko Piperrarena, Bilboko Edariena, Angeluko "Pili-pili" Piperrarena, Donibane Garaziko Ardi Gasnarena, Senpereko Amuarrainarena, Irubeko Barraskiloarena,

Bideauko Gourmetena, Ziburuko atunarena eta antolatzailearena.

### Polikiroldegiaren eraikuntza hasia

Toki Ona futbol zelaian guaren paratzearekin hasitza eman daitezke polikiroldegiaren eraikuntza lanak. Bukatzeko epea 10 hilabete inguru jarri da eta "Chantre S.A." enpresak gauzatuko du egitasmoa 161.503.073 pztako aurrekontuarekin.

### Nor dago atzean?

Jipoi bat dela eta larriki zauritua egon ondoren, Josetxo Azkona Eltzaurdia etxean dago berriro. Gertaera ez dago oraindik argitua baina berehala ikusi zuen medikuak dioenez "bertze batek edo batzuk eragindako zauriak jasan zituen Josetxok, bertzelako hitzak erran badira ere".

Bere aldetik, Udalak tramitazio legalik ematen bada akusazio partikularra bezala aurkezteko erabakia hartu du.

*Zure elektrogailuek ba al dute  
3 urtetarako garantiarik?*



LESAKA

# Ikastolak urteroko Batzarre Orokorra egin zuen

51 milioitakoa izan zen osotara Tantirumairu moldatzen erabilitako dirutza

AITOR AROZENA

Tantirumairu ikastolak bere urteroko batzarre orokorra egin zuen Ekainaren 8an Otxogorrieneako egoitzan 100 bat pertonen parte hartzearekin.

Balantze ekonomikoari dagokionez, Tantirumairu ikastola moldatzeko, hau da, Otxogorrienea etxea moldatu, patioa eta parkea egitea, 51 milioi erabili dira. Hasierako aurrekontuan patioak egitea kontutan hartzen ez bazen ere, gero egitea erabaki zen aurrekontua igoz. Dirutza honi aurre egiteko Euskal Herriko Ikastolen Konferentziara joko du ikastolak. Eraberean, gurasoen kuota 650 pezetatik, 1.000 pezetara igotzea onartu zen.

Balantze pedagogikoan, ikastolak burututako lanak, bidaiak eta irteeren berri eman zen.

Batzordearen aldaketa puntuan berriz, orain arte martxan zeuden bi batzordetik bostera pasatu zen: Ikastolaren mantenimendua, idazkaritza, ekonomia pedagogia eta ekintzak.



Kurtso bukaerako besta ospatu zuten pasa den ortziralean Tantirumairu ikastolakoek. Bertsolariak, "VIII. Txoko-Txiki" Ipuin eta Bertso paper lehiaketaren sari banaketa, jokoak, antzerkia eta Pipergorri aldizkariaren 8. alearen aurkezpena izan genituen bertan



San Fermin Jubilatuta elkarteak ekintzez betetako Aste Kulturala arrakastaz garatu zuen. Argazkian, Ajoarriero eta txistorrada lehiaketaren partaideak

Aipagarria da batzordeetan parte hartzeko jende aunitz agertu zela prest. Horrela, ekintzen batzordeak herria piztutzeko kul-

tur ekintzak antolatzea izanen du eginkizun nagusi bezala eta proposatu zen lehen ekintza, Ikastolaren Eguna antolatzea izan zen.

## Herriko bertsolari gazteak nagusi

Erabateko nagusitasuna erakutsi zuten herriko bertsolari gazteek Ekainaren 7an Iruñean ospatu zen Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketan. Erntainen mailan eta bapateko sailean, Xabier Silbeira izan zen txapelkun, Estitxu Arozena bigarren eta Iñigo Olaetxea laugarren. B sailean berriz (oinak eman eta bi bertso osatzea) Estitxu Fernandez izan zen txapelkun.

Bertzalde, Donostiako Karmelo Baldan egin zen Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan, Estitxu Arozenak 12 lagunaren artean hirugarren postua lortu zuen, horrela Gernikan pasa den larunbatean ospatu behar zen Euskalerriko Bertsolari Gaztetxoaren txapelketaren finalerako txartela eskuratu.

□ **Bortzirietako** futbito txapelketa azken txanpan sartu da. Hasierako 27 eki-poak poliki-poliki kanpoan gelditu dira eta asteburu honetan eginen dira finalerdiak eta finala.

**XATURETXEA FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27  
LESAKA

LORA DENDA  
**TXIRULA**  
Bittiria LESAKA

Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42  
LESAKA

**IRUBIDE**  
**OSTATUA**  
**ERRETEGIA**  
Tfnoa: 637127 LESAKA



## Iazko osasun kontsulten balantzea ikusgai

*Tentsioa, diabetea, txertoak, analisiak...*

PELLO APEZETXEA

Iaz herriko osasungintzan, mediku-erizainaren bidez burututako ekintza orokor nabarmenenak, hauek ditugu: **1. Tentsioari** buruz. -76 jenderi dei egin zaie urteroko errebi-siora. Honetan zera egiten da: elektrokardiograma (bihotzarena), odol eta pixaren analisia, medikua-ren ikustaldia kontsultan, begiratutakoaren balorapena azaltzeko eta, behar izanez gero, bularraren radiografia. - Tentsiodun berriren bilaketa: Iaz 40-50 urtetakoak deitu dituzte, ondorioz 149 ikustaldi eginez kontsulta etxean. Tentsiodunen segipenerako 912 kontsulta izan dira



denetara kontsulta etxean, eta 62, etxetan. **2. Diabetea.** 16 diabetiko dira herrian, astero gluzemia edo azukre ikusketa eginez Etxalarko kontsulta etxean. Urte osoko analisi eta kontsultak: 625. **3. Eskolalako osasuna.** Eskolaurreko 1. ikasturtekoak eta

OHO (EGB)ko 1., 3. eta 5.ekoak ikuskatzen dira urtero. Iaz 20 ikusketa. **4. Txertoak.** Gripearean kontrakoa, 217k hartu zuten iaz. Hauetatik 139k, 65 urte gaindituakoak. Bertze 78ak tentsio, diabete, bronkiotako edo bertze gaitzen batek ukituak. Tetanoren

kontrako lehenbiziko txertoa 59ri sartu zitzairen. Bigarren aldikoa, berriz, urtearen buruan, 65 jenderi. **5. Elektrokardiogramak** (bihotza begiratzeko). Herrian burutuak: 105. **6. Analisiak.** Herriatik eskatutako odol analisiak: 206. Pixa analisiak: 139. Anlizatu Irungo ospitalean eta odola Beran ateratzen da.

### Lehen komunioa

Andutzeko Nagore Ansalas, Grazianeneko Maria Senper, Urritiko Jasone Mitxeltorena, Sanduineko Bordako Imanol Aranburu eta Olaindegiko Bordako Jabier Arribillaga izan dira Bestaberri egunean lehenbiziko aldiz komunioan parte hartu dutenak.

## IGANTZI

### Eskolako haurrak kanpamentuan

OSKAR TXOPERENA

Azkeneko urtetan egiten duten bezalaxe, kanpamentuan egondu dira Igantziko eskolako haurrak. Bi taldetan banaturik joan dira aurtengoan. Tti-

kienak Orion egondu dira, hau da, 1., 2. eta 3. mailakoak. Guztira 7 joan ziren, zenbaitzuk nahiago izaten baitute etxean gelditu. Eguraldiak ez zien gehiegi lagundu baina izu-

garri ongi pasatu omen zuten. 4., 5. eta 6. mailakoak berriz, aste bete berandua-go izandu dira. Hauei Hondarribira joatea tokatu zitzairen. Hauek ere berriro joateko prest etorri dira.

Beraz, ikastea eta jolasak ongi egokitzen dakitelar dirudi, zeren 21ean ere



(bertze aldean segitzen du)

*...eta lapurreta eta sutearen aurkako  
Aseguru polizarik?*



Gamarrara joateko irtenaldia prestatuta omen daukate. Ongi pasa!

## Pala txapelketa

Biltoki elkarteak pala txapelketarako izen ematea ireki du. Aurtengoan badugu berrikuntza handi bat, bi maila ezberdinetan apuntatzeko aukera izanen baitu jendeak. Dirudienez bikote onegiak izaki eta zenbaitzuk ez ziren ausartzen parte har-

tzera. Izen ematea hilabete honetan bukatzen da eta San Fermin ondotik hasiko omen da jokatzeko. Animo!

## San Juan Xar besta

Aurten astelehenekin tokatzen da San Juan eguna. Prestatua dago iadanik egun horretarako egitaraua. Jakina da egun horretan San Juan Xarren bertan egiten den meza eta erromeriaz aparte, Igantzin Zaharren Eguna ospatzen dela.



Xabier, Nagore, Mikel, Iñigo, Olatz, Igor eta Imanol kanpamentuan izan ziren

## ARANTZA

# Euskara Mankomunitatearen aurtengo aurrekontua 24.567.893 pezetetara igotzen da

JON LARRETxea

Maiatzaren 29an onartu zen Arantzaren egin zen bileran Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen aurrekontua.

Denetara 24.567.893 pezetetara igotzen da aurtengo Euskara Mankomunitatearen aurrekontua honelaxe banatua dagoelarik:

**Administrazioa** (langilean soldata, etab.), 4.300.000 pzta.

**Kanpainak**, 1.300.000.

**Udal langileak euskalduntzeko**, 4.263.915.

**Euskalduntze-alfabetatze**, 4.159.808 pzta.

**TTIPI-TTAPA**, 5.791.244.

**Nafarroa Oinez**, 110.000 pzta.

**Herri Urrats**, 110.000.

**Bertsolari Elkarte**, 10.000 pzta.

**Euskal Herrian Euskaraz**, 20.000 pzta.

**Korrika**, 20.000 pzta.

**Errotulazioak**, 2.600.000 pzta.

**Euskararen Asteak**, 750.000 pzta.

**Matxinbeltzenea**, 300.000 pzta.

**Ezusteak**, 350.000.

Diru kopuru hontatik 836.710 pzta. dagokio Arantzari, gainontzekoa Diputazioa eta bertze lau herrien artean ordaintzen delarik.



## Ikasturtea bukatzeaz

1990-91 ikasturtea bukatzeaz dago eta dagoez ari dira eskolako haurrak kanpaldiak egiten. Horrela hasiera ziklokoak Orion hiru egun egin dituzte, erdi ziklokoak Berti-

zen hiru egun ere, 5. eta 6. mailakoak Hondarribian eta 7., 8. mailakoak Barze-lonan egon ziren. Aurtengoan 6 gaztek utziko dute eskola.

Udari begira igeri ikastaroetako autobusa montatzeko asmoa dago berriro.

**PABLO-ENEA**  
**Jatetxea**

Tfnoa: 63 40 77

**ARANTZA**

MANUEL LANTZ

**KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA**

Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14

**ETXALAR**



## Haurren eguna ospatuko da Ekainaren 21ean

Ikastolako Patronatuak antolaturik, gelditu zen dirutik

PATXI PETRIRENA

Jakina den bezala, ikasurte honen hasieran 3-4 urteko haurrak ere Eskolaren esku gelditu ziren, ordua arte hezitzen zituen Ikastola desagertuz. Momentu hartan zegoen diruaren banaketa egite-rakoan, bertze Ikastola batzuri laguntzeaz gain (400.000 pza), liburutegi baterako materiala erosten (200.000) eta haurrentzako egun bat antolatzen erabiltzea pentsatu zuen patronatuak. Eta egun hori heldu den ortziralara izanen da hain zuzen ere.

Prestatu den egitaraua, nola ez, haurrei zuzendua dago, eta egun osoan jo-



koak, animazioa, karts edo kotxe ttikiak eta bertze zenbait josteta izanen dituzte. Eguerdian, Ulibeltzak elkarteak bazkaria, hirutanogeitamarren bat haurrentzako prestatua. Ongi pasa neska-mutikoak!

### Pilota txapelketak

Jokoan dira dagoeneko herriko pilota txapelketak, paleta gomaz. Hiru multzotan banaturik, bi multzotan gizonetzakoak eta bertzean emakumezkoak, larunbat arratsaldean aritzen

dira eta bestetan ikusiko ditugu azken partiduak, txapelkunak erabakiko dituztenak alegia.

### Herri kirolean aintzinerak

Ekainaren 9an herrian Bera eta Anueko taldeei irabaziz eman zioten sunbildarrek hasiera aurtengo txapelketari. Sokatiran tiraldi guzietan garaile, eta proba konbinatuan ere bai, baina denbora guzian beratarren gibeletik joan ondoren azken-azkenean lortu zuten garaipena, aizkolariak izan zuelarik horretan zerikusia haundia. Aipagarria da jende franko bildu zela eta ikuskizuna gustukoa izan zuela.

## DONEZTEBE

## Arkupeak elkarteak bi bidai burutu ditu Ekainan

Arkupeak, jubilatua eta alargunen elkarteak, bidai pare bat egin ditu ia bukatzeaz dugun Ekaina honetan.

14ean, La Rhune mendira joan ziren Sarako funikularrean (animatuenak Beratik oinez igo zuten).

Berako Zalainjatetxean bazkaldu eta ondoren, dantzaldia izan zuten.

**4 egunetako bidaiak** Bertzalde, pasa den asteleheneretik hasita, "El Pilar", "Monasterio de Piedra", Soria, Laguna Negra eta

Ezkarai bisitatzen ari dira, ekainaren 21ean bueltatzeko asmoa dutelarik. Lau egunetan zehar leku zoragarriak bisitatzeko aukera ere izanen zuten, dudarik gabe.

Umore onean jarrai dezatela aunitz urtez.

### Txirrindulariak Uztailaren 2an

Datorren Uztailaren 2an eta Doneztebeko besten barnean, txirrindulari kadeteen laisterketa burutuko da 10,30etatik aintzinerak, Errekak antolatuta.



## Hemen dohain izanen dituzu

Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77 BERA



BERTIZARANA

Ostatu bat irekiko da Narbarten

Inguruotan, ostaturik ez duen herri bakarra da

TXEMA ALDABE

Gaur egun, Narbarte da inguru honetan herriko ostatrik ez duen herri bakarra. Herriari bizitasuna eman nahian, bertako kontzejuak, Herriko Etxearen behelaldean ostatu berria eraikiko du abudo xamar, urte bat baino lehen beti ere. Honen aurrekontua, 15 milioi ingurukoa da. %15a Nafarroako Gobernuak ordainduko du eta eta berak aintzinduiko du %80a. Obrak egindakoan, konkurtsoan aukeratuko da bere erabileraz arduratuko dena.



Inguru naturala zaintzeko

Nafarroako Gobernuak horretarako dirulaguntzak ematen dituela eta, laguntza eskatu egin zaio Gil-

txaurdegi alderdia berreskuratzeko. Beharrezko tramiteak betetzeko eta balorazio-txostena egiteko, tekniko bat kontratatuko da.

ttipi-flash

□ Ibarrendoa bidea zabaldu da dagoneko, 928.144 pzta ordaindu zaiolarik Pedro Bengoetxeari horrengatik.

□ Herri Kirolak antolatutuen ekintzengatik, 260.000 pztatako dirulaguntza hartu du.

□ Eskolako kale-fakzioa dela eta, presupostaturik zegoenetik %80ko dirulaguntza hartu da; hau da, 2.080.000 pzta. Aurrekontua 2.600.000 pezetatkoa zen.

□ Herriko ur depositoko kloratzailea instalatzeko, 143.147 pezetatako dirulaguntza eman du Osasunbideak.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

*Michel Guerendiain*

SARA - LAPURDI

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEURUA. Konpania on baten balioa.



Carlos III.a Etorbidea, 14  
Tlfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49  
31002 IRUÑA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g  
Tfnoa.: 61 51 19  
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea  
(Ajentea)



## Marka berria Mendaurrera igotzen

Jende ugari Trinitate Egunean

### IBAN ISASI

Joxe Mari Gorosterrazuk Patxiku Iparragirrek orain dela bostpasei urte lortutako marka hautsi zuen. Lortutako marka, eta beraz hurrengo apostuetan kontutan hartu beharrekoa, ordu 1, lau minutu eta 33 segundutakoa izan zen, honela 8 minutu kenduz aurreko markari.

Aurreko marka hagitz ona zen, oraingoan hobea, ea nor ausartzen den hau haustera!

### Trinitate Eguna

Aurten bi egun ezberdinetan zatitua izan zen



Trinitate Eguna, batean (maiatzaren 26ean) meza ospatu zen, baina benetako besta hurrengo igandera, hau da, ekainaren 2ra pasa

zen. Bi egunak jendetsuak izan ziren eta, errate baterako, Mendaurko enbaltsean antolatutako bazkarian (ekainak 2) 60 lagun-

dik gora parte hartu zuten. Ondoren giro ederra egon zen, eta arratsalde eta gauetz, dantzaldi ederrak bota zituzten Iturengo gazteek Izotz taldearekin.

### Euskara ikastaroak AEKren eskutik

Aurten ere bi txandatan etorriko zaizkigu Iturenera AEK-k antolatzen dituzten euskara ikastarokoak. Bata uztailan eta bertzea Abuztuan.

Aurreko esperientzia ona izan zen antolatzaile eta herritarrendako, eta erran daiteke etorritako jendeak euskara ongi menperatuta joan zela.

## Hats berri berri bat...

### OLHAIN ELKARTEA

"Zazpiak bat" dantza elkarteak bilkura nagusia egingen du ekainaren 29an, arratseko 7etan, Gazteen etxean (larunbatez). Karia hortarat, bulegoak agertaraziko ditu kondu xehetasun, urtean zehar egin lan eta ikastaldien aipamen, orokorki erraiteko bere egoera.

Duela urtetsu bat, azken bilkura nagusian, bulegoa erreberritu eta gazte batzu

arduradun bilakatzen ziren, odol berri bat ekarriz taldeari. Aurten lehen aldikotz, bere gain hartzen ditu udako ekitaldiak. Hune egitaraua xeheki:

#### Uztailan:

•17an, Arbonako Primadera.

•31an Zazpiak Bat.

#### Agorrilan:

•7an eta 14ean, Beskoitzeko Oinak arin.

•21ean, Zazpiak Bat

*Ikasgaietan  
45 bat  
dantzari  
elgarretarar-  
tzen dira  
larunbatero  
arbasoen  
urrats arinen  
ikasteko eta  
biziarazteko*





ZUBIETA

ION ETA JAIONE

Trenitate egunean jendea Mendaurretik jautsi eta gero, pilota partidu zoragarria jokatu zen; Isabeleko Martzelino, Juanito eta Inaxi Mariren kontra. Pelea gogorra izan bazen ere, Martzelinok irabazi zuen 22-17.

Futbito

Zubieta gazteek atera zuten futbito taldea Lesakako torneoan jokatzeko. Lehenengo partidua, nahiz eta galtzen hasi, 12-7 irabazi zuten. Bigarren partiduan ez zuten halako suerterik izan, Etxalartarren kontra 5-3 galdu bait zuten.



“Kalejiran” irabazle

Aurreko alean aipatzen zen bezala, Jon Mikel eta Hilario ikusi ahal izan ge-

nituen ETBko Kalejiran, Iñaki eta Jonek egindakoa hobetuz. Galderak eta bideo-trukoak asmatuz

125.000 irabazi zuten eta baita aki kamara bat ere. Finalean, kromako prueba irabazi zuten, Londrese- ra bidiaia ere irabazi zuten eta sari ezkutua aukeratu, piper-gorri korda bat. Eta sari garrantzitsuena... panpinoa.

Besta-Berri

Goizeko 10etan meza nagusia eta gero, belarrez estaliriko kaleetan barrena prozesioa egin zen. Arratsaldeko 7ak aldera, Udalak, ardoa eta gazta atera zuen plazara, Sunbillako trikitilariak beren soinuekin giroa alaitzen zuten

DONAMARIA

Eiza konpontzen hasiko diru

SARA ETA NATALIA

Orain dela aste batzuk hasi ziren konponketekin eta oraingoz elizaren ziminterioa konpondu dute eta erran beharra dago nahiko ongi utzi dutela.

Don Eustakio apez jaunak meza bukatu ondoren beste sermoitxo bat bota zigun, igeltseroak ez dutela oraingoz aintzineria segituko erranez eta ondorioz, elizaren sarrera auzolan bezala konpondu be-

harko dute herritarrek herriko bestak ailegatu baino lehen.

San Migelen bisita

Urtero bezala San Migel aingerua bere bisitatxoa egitera etorri zen Donamariara. Meza ondoren auzoetara eta baserrietara abiatu zen ezinduei eta xaharrei San Migel aingerua adoratzeko aukera emanaz, noski, beti bezala, Argiñe herriko organista “guia” bezala zuela.







AGESTA

## DONEZTEBE

Ekainak 28, 29, 30 eta uztailak 1, 2



AGESTA

### Ortzirala 28:

**8etan** Herriko Etxetik botako dira besten hasiera adierazten duten altxaferuak; Segidan, herriko Txistulariak eta Bear-Zana txaranga ibiliko dira karrizak-karrika. **Gauetz** dantzaldia JATOR taldearekin.

### Larunbata 29:

#### San Pedro eguna

**8etan** Entzierrua; **11,30etan** Txistulariak karrizak-karrika eta Meza Nagusia; **6,30etan** Esku-pilota partiduak; **7etan** zezenttoak; **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia LOS CLAN taldearekin.



ARROPA ETA OPARI DENDA

Tfnoa: 451540  
Mercaderes 9  
DONEZTEBE



San Migel auzoa 27,  
45 08 83 - DONEZTEBE



## CRISTALERIA VELATE

TRUGLASS

- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Mural ispiluak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Grabatuak
- ✓ Seguritate lunak
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Oparitzeko artikulua

ELIZONDON, Pedro Axular karrika, 1 – Tfnoa: 58 08 25  
DONEZTEBEN, Merkaderes karrika, 5 – Tfnoa: 45 09 91



**Igandea 30:**

**8etan** Entzierrua; **12,30etan** Lesakako Bandaren kontzertuak Elizako atarian; **1etan** Erraldoi eta Buruhaundien itzulia; **6etan** Herri-Kirolak Bear-Zana frontoian: Txingak, Zakulariak, Aizkolariak, Korrikalariak, Arpanlariak (gizonezko eta emakumezkoak) eta Sokatira (gizonezko eta emakumezkoak). Sarrera dohainik izanen da; **Arratsalde eta gauz** dantzaldia LOS CLAN taldearekin.

**Astelehena 1:**

**8etan** Entzierrua; **11etan** Plater Tiroketa; **12etan**



ZALDIA

## IBARROLA

**HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA**

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - **DONEZTEBE**

## RUIZ OKINDEGIA

### Autozerbitzua

Karrika Nagusia 3, Tfnoa: 45 00 37 - **DONEZTEBE**

LEKTRONIKA  
**ERODRI**

ELEKTROGAILUAK  
TB - BIDEOAK - SOINUA  
Salmenta eta Konponketa

Parrokia 16, Tfnoa: 45 00 60 - **DONEZTEBE**

## SHANTI

### Ostatua

Amezitia 16, Tfnoa: 45 00 15 - **DONEZTEBE**

*Nerea*

*Oinetakoak*

San Miguel 2, **DONEZTEBE**



## AMEZTIA

### Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tf:450028 - **DONEZTEBE**

## RUIZ OKINDEGIA

### Autozerbitzua

Karrika Nagusia 3, Tfnoa: 45 00 37 - **DONEZTEBE**

## TELLETXEA

### Tailerra



**FORD Banatzailea**

Leitzako karretera z/g

Tfnoa: 45 06 67

**DONEZTEBE**





AGESTA

Erraldoi eta Buruhaundien itzulia; **1etan** zezenttoak; **7etan** zezenttoak; **arratsalde eta guez** dantzaldia MONTESBLANCOS taldearekin.

**Asteartea 2:**

**10,30etan** Txirrindulari Lasterketa; **11etatik 1etara** haurrentzat PISTA LIBRE jolas parkea Bear-Zana pilotalekuan; **1etan** Erraldoi eta Buruhaundien itzulia; **2,30etan** Herri-Bazkaria; **4etatik 7etara** PISTA LIBRE Jolas Parkea; **Arratsalde eta guez** dantzaldia IRUÑA BAND taldearekin.

# 12

## Ostatua

San Miguel 12  
Tfnoa: 45 01 53  
DONEZTEBE

## AROZENA Ostatua

Eguneroko menua

Eguzki Eder 3, Tfnoa: 45 04 43 - DONEZTEBE




**ALBAITERITZA ZENTRU TEKNIKOA**


Karrika Nagusia 1, Tfnoa: 45 05 91 - DONEZTEBE

## SOROZABAL GOXOTEGIA

Karrika Nagusia 10  
Tfnoa: 45 00 87  
DONEZTEBE



TELLETXEA  
ALTZARIAK



Klase guzietako koltxoaiak salgai

Rosa Seminario z/g  
Tfnoa: 45 02 58  
DONEZTEBE

## SALDIAS HARATEGIA

Bertako haragi freskoetan  
espezializatuak

Karrika Nagusia 16  
Tfnoa: 45 01 91  
DONEZTEBE



## EL CAFE Ostatua

Pintxoetan espezialitatea

Bokadilloak

Parrokia 3, Tfnoa: 45 03 18 - DONEZTEBE

## BELARRA Kafetegia

PLATER KONBINATUAK

Amezti 3, Tfnoa: 45 03 06 - DONEZTEBE

## MAYLIN

Frito eta pintxo beroetan espezialitatea

Parrokia 11, Tfnoa: 45 03 66 - DONEZTEBE

## LAKANBRA MOTOAK

Bigarren eskuko mendiko motoak

Bizikletak, Segadorak

Mercaderes 16, Tfnoa: 45 00 82 - DONEZTEBE

## LORETOKI

LORE SALMENTA, AUKERA ZABALA

Karretera ondoan, Tfnoa: 450258 - NARBARTE

## BLAS LIBURUDENDA

Parrokia 1, Tfnoa: 45 02 69 - DONEZTEBE



ETXEGINTZARAKO MATERIALEA  
ETA BURDINDEGIA

Tfnoak: 450258 / 450068 - DONEZTEBE

## TABERNA ETXEA

EMAKUME, GIZON ETA HAURREN ARROPA KONFEKZIOA  
GORTINAK ETA KARRILAK

Merkatariak 12, Tfnoak: 45 00 07 - DONEZTEBE

## MIGELENA ANAIK

ERLOJU eta BITXI DENDA  
Sukalde eta etxeko tresnak

Amezti z/g, 45 01 26 - DONEZTEBE




Zure  
tailerra

Rosa  
Seminario 4  
Tfnoa:  
45 01 15  
DONEZTEBE















Leitzaldeia Telf. 61 07 76  
 Malerreka Telf. 45 06 97  
 Bortziriak Telf. 63 77 96



BORTZIRIETAKO EUSKARA  
 MANKOMUNITATEA ETA  
 MALERREKAKO EUSKARA  
 ZERBITZUAK.







## SALDIAS



### Ortzirala, Ekainak 21:

**8etan** Altxaferua; **9etan** Baztanzopak.  
**Gauz** dantzaldia MODESTOrekin.

### Larunbata 22:

**8etan** Kalejira; **11etan** Mus Txapelketa; **5etan** Haur Jokoak eta txokolatea; **6etan** Pelota partiduak; **Arratsalde eta gauz** MACUMBA.

### Igandea 23:

**8etan** kalejira eta ALZUGARAI Trikitilariak; **1etan** pelota partiduak; **5etan** Plater Tiroketa; **6etan** Pelota: *Irigoien-Iparragirre, Salaberria-Mariezkurrenaren* kontra; **Arratsalde eta gauz** MACUMBA Taldea.

### Astelehena 24: San Juan Eguna

**8etan** Kalejira; **12etan** Meza Nagusia; **1etan** Aizkora Apostua: MINDEGLIA Anaiak; **5etan** Toka Txapelketa; **6etan** Pelota: *Sanz-Satrustegi, Goñi-Urrutiaren* kontra; **Arratsalde eta gauz** YATAGAN.



## SANTAMARIA

### Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneroko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

*MariCruz*

## LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

## ARREGI OINETAKOAK

Karrika Nagusia 21, Tfnoa: 45 02 10 - DONEZTEBE

## ANAIK



## TITI BAR

Amezitia 7, Tfnoa: 45 02 71 - DONEZTEBE

## IRIGOIEN Arraindegia

Karrika Nagusia 2, Tfnoa: 45 01 40 - DONEZTEBE

## CASA LANDA

AUTOZERBITZUA - JANARIAK

Santa Lucia 4, Tfnoa: 45 00 33 DONEZTEBE



# ARIZKUN

## Ortzirala Ekainak 21:

11etan Txupinazoa. 12,30etan Txopogoratzea, 4etan Pilota finala; 9etan Gazteen Afaria; Gauez dantzaldia; Goizeko 6etan Zinger-Jatea.

## Larunbata 22: Haurren Eguna

10etan Diana; 11etan Haur Jokoak; 1etan Herriko haurren bizikleta lasterketa; 2etan Bazkaria haurrendako eta jokoak; 4etan Plater Tiroketa libre; 6etan Antzuola eta Arizkungo dantzariak; 8etan dantzaldia; 10etan Txomin Artola eta Amaia Zubiria; Gauerditik aintzinerara Gau-Pasa; goizeko 6etan Ziztor Jatea.

## Igandea 23:

10etan Dianak; 10,30etan pelota: Baztan-Lizarra; 12etan Bertsolariak Lizaso-



## Juantxo San Miguel

Kalefakzioa eta argindarra  
Iturgintza

Tfnoa: 45 08 66 DONEZTEBE

## RUIZ MOBLEAK

Opari eta dekorazioarako artikulua

Merkatariak 16, Tfnoa: 45 01 10 DONEZTEBE

## MENDAUR

AUTO ESKOLA

San Miguel Auzoa, Tfnoa: 45 02 78 DONEZTEBE

## ALVARO OLAIZOLA

Monte Viejo ardoak eta Keler zerbezaren  
banatzailea

Karrika Nagusia 13, Tfnoa: 450699 DONEZTEBE

## DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA

Udan  
lau  
ordutako  
ikastaroak



Tfnoa: 451555

San Miguel Auzoa, DONEZTEBE

**ika**  
ikastari

## M<sup>a</sup> SOL ITURRIA RUIZ

AUTOZERBITZUA

Karrika Nagusia 11, Tfnoa: 450116 DONEZTEBE

## PICABEA

BOUTIQUE

Karrika Nagusia 5, Tfnoa: 450207 DONEZTEBE





Sorozabal-Sarasua; **5etan** Soka-Tira, Aizkolariak, Txingak; **9,30etan** San Juan sua; **12,30etan** dantzaldia ondotik Zardin-Jatea.

**Astehena 24: San Juan eguna**  
**Goizeko 6etan** Ezkil Joñzea; **10etan** Diana; **11etan** Meza Nagusia; **12,30etan** Mutil Dantzak; **5etan** Plater Tiroketa herrikoendako; Antzerkia KUKUBILTXOrekin; **Arratsalde eta gauz** dantzaldia.

**Asteastea 25: Herriko Eguna**  
**10etan** Dianak; **11etan** Mus Txapelketa; **2,30etan** Zikiro Jatea MODESTOrekin; **6etan** Asto karrerak (Nafarroako Txapelketarako puntuagarri); **Arratsalde eta gauz** dantzaldia MODESTOrekin eta ondotik Pobre de Mi.

**Asteazkena 26: Bestondo Eguna**  
**Oharra:** Egunero JATOR Taldea eta Mutil Dantzak Jabier eta Felixekin.

## HONORIO TABERNA

EMAKUME, GIZONEZKO ETA HAUR ARROPEN BOUTIQUE

Merkatariak 29, Tfnoa: 45 01 09 DONEZTEBE

## IBAI ONDOA OSTATUA

Intzakardi, Tfnoa: 45 01 23 DONEZTEBE

## RUIZ OKINDEGIA Autozerbitzua

Karrika Nagusia 3, Tfnoa: 45 00 37 - DONEZTEBE

## MARTIN HARATEGIA BERTAKO ARETXIAK

Parrokia 1, Tfnoa: 45 01 60 - DONEZTEBE

## ALSUA PERFUMERIA

Santa Lucia 11, Tfnoa: 45 02 36 DONEZTEBE

## KLINIKA DENTALA

J.L. IRURITA eta M.B. RUBIO Doktoreak

Rosa Seminario 7, Tfnoa: 45 02 67 - DONEZTEBE

## MAYLIN SPORT

KIROL ARTIKULUAK ETA GAZTE MODA

Parrokia 15, Tfnoa: 45 02 57 DONEZTEBE

## JUAN J. PIKABEA

• ARROPA KONFEKZIOAK •  
GIZONEZKOENDAKO JOSTUNGINTZA

Amezti z/g, Tfnoa: 45 01 63 DONEZTEBE



# ERRATZU

**Ortzirala, ekainak 28:**

**10etan**, altxaferua eta ezkil jotzea; **Gauz** dantzaldia, BASAKAUNekin.

**Larunbata, 29:**

**10,45etan**, altxaferuak eta herriari itzulia; **11etan** Meza Nagusia; **12,30etan** dantzariak eta bertsolariak: *Lizaso-Mañukorta*; **6etan** pilota partiduak: Baztango bi bikoteren artean eta *Goñi-Urrutia*, *Sanz-Lasa* Illren kontra; **8etan**, bertsolariak: *Lizaso eta Mañukorta*. Puntu emai-  
lea: *Mariano Izeta*.; **gauz** BASAKAUN taldea; **goizeko 5etan** zingerrada Txoko geltokian.

**Igandea 30:**

**9,45etan** suziriak eta herriari itzulia; **10etan** meza; **12etan** Erratzuko I. Futbito txapelketa.; **6,30etan** *Gabriel Saralegiren* exhibizioa eta bertsolariak, *Argiñarena*, *Olano* eta *Fagoaga*; **10,30etan** errifaren zozketa; **arratsalde eta gauz** ALMEN taldea.

**Astelehena 1:**

**12etan** antzerkia haurrentzat; **2etan** zikiro-jatea eta kirol froga desberdinak bazkaltiarren artea; **arratsalde eta gauz** dantzaldia JOSE ANGELEkin.



*ostatua*

Tfnoa: 45 31 18 - ERRATZU

Juan Jose Dendarieta

Ostatua - Janaridenda

Albantzenea, Tfnoa: 45 31 12 - ERRATZU

**DANIEL ELORZA**

**Harategia**

Mercatariak 14, Tfnoa: 45 00 40 - DONEZTEBE

**ASKIN OSTATUA**

**Bokadillo eta Plater konbinatuak**

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

**DONEZTEBEKO**

**BOTIKA**

Merkatariak 1, Tfnoa: 45 00 92 - DONEZTEBE

**APEZTEGIA**

**JOXE HAROTXEN ETXEA**

Tfnoa: 45 00 65 - DONEZTEBE



## Quinto Real eta Erregerenako lurrak eskuratu ditu Udalak

Halere, Eugiko Kontzejuko lehendakariak ez du sinatu Erregerenari zegokion akta

JOSEBA I.

Ekainaren 10ean eskuratu zuen Baztango Udalak Quinto Real eremuaren %30a (bertze %70a Erroko bailararentzat) eta Erregerena mendiaren %90a (bertzea Eugiko kontzejua errentzat), Nafarroako Gobernuarekin sinatutako traspasoaren arabera.

Sinaduraren ondoren, denak pozik agertzen ziren, nahiz eta Eugiko kontzejuko lehendakariak ez zuen sinatu Erregerena mendiari zegokion akta, bere ustez, "mendia osorik guri dagokigu Esteribargo bailaran bait dago". Javier Elizalde, bertzalde, pozik agertu zen, Erregerena mendiaren polemika "egun garrantzitsu batean arantza txiki bat" bezala definitu bazuen ere. Bere ustez, Eugikoak oker dauka, "lurra ematerakoan ez bait da kontutan hartu non dauden lur horiek, orain arte aprobetxamendua egiten zuten Udaletan baizik, eta hau betidanik Baztango Udalak egin du ehuneko ehunean".



Quinto Real-i buruzko akordioa sinatu zuten Urralburu, Elizalde eta Erroko bailararen ordezkariak

Hala ere, Baztanen egindako azken plenoan, Baztango Alkartasunak "Quinto Real-en %47a bailararentzat eta %53a Errorentzat izatea eta Erregerenari buruz Eugi-kin negoziatzen hastea" proposatu zuen, baina ez zen onartu. Pleno berean erran zenez, "1988an akordio batera iritsi ziren Baztan eta Erroko ordezkariak. Honen arabera, Quinto Real-en aprobetxamendua bateratzeko, Mankomunitatea sortu zen, %30 eta %70eko portzentajeekin, Baztan eta Errorentzat, urrenez urren".

### Ziga eta Elbeteko elizak moldatzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak, 1.763.184 pezeta dirulaguntza eman dio Iruñako Arzopisbadoari, honek, Zigako eliza moldatzeko eta bertze 112.044 pezeta Elbeteko parrokia moldatzeko.

### Bularretako minbiziaren prebentzioa

45tik 65 urteko emakumeei dagokion bularretako minbiziaren prebentziarako kanpaina egingen da Baztanen. Emakume guziei

bidaliko zaie paper bat Osasun Kontseilutik. Autobus bat ere izanen da Elizondoko plazan eta hor egingen dira beharrezko probak. Joateko modurik ez dutenentzako autobus bat arituko da herriz herri, herriko plazetan.

### Patxiku Loiarte alkate, seguraski

TTIPI-TTAPA hau zure eskuetan izan orduko erabakia egon bada ere, badirudi EA, HB eta PSOE elkartuko direla, horrela alkatetza EAko zerrendaburuarentzat izanen delarik. Badirudi akordioetara ailegatu direla azken orduko desadostasunik ez balego, behinpehin.

### Jendea jotake belarretan eta... besten zai

Arizkungoak datoz lehenbizi 24ean eta Erratzun beranduxeago (ekainaren 28an hasi eta Uztailaren 1a arte).

San Juan bezperan indar berriz egiten dituzte ekintzak Arizkunen, bai sutea eta bai sorgin baten erretzea. Jende ugari joaten da, ikusgarria baita.

**ERRATZU OKINDEGIA**

**zure eguneroko ogia**

453168 - ERRATZU

**ZUBIPUNTA EDANLEKUA**

(Sidreria)

**JANARIDENDA**

Tfnoa: 453111 - Urdaxipi - ERRATZU



ZUGARRAMURDI

Eskolako haurrek hiru eguneko ateraldia egin zuten

KORO ETA MARGARI

Herria nahiko ixila eta trixtea izan ginuen gan den astean OHOKo haur guztiak txango (edo exkursio-nerat) ganak zirelako.

Bigarren mailatik zortzigarreneanokoak 3 egun pasatu zituzten Gasteiz eta Iruñean. Ttikienak berriz, (Baztango bertze lau herriekin batera) Zarautzera gan ziren hiru egun pasatzera. Egun hauetan hemen ez ditugun aunitz gauza ezagutzeko aukera izanen dute (itsasoa, futbol zelaia, irristatzeko zelaia, etab...).



Esnea behiti, nekazariak larri

Gure herrian (eta pentsatzen dugu bertze-

tan berdintsu izanen dela) nekazariak nardatzen hasiak dira: gero eta lan gehiago, gero eta gastu ge-

hiago, eta ordainez esnearen prezioa behiti gaki da ziztu ederrean.

Beharrik esnearen "kuota" haunditu behar omen dutela: 100.000 litro bainan gutiago dutenak haunditzea eskatzen ahal dute (gero ikusi behar ematen duten edo ez, edo zenbat ematen duten).

Nekazari ttikiek, behi guti dituztenak, gauzak larri izanen dituzte, nola aterra bizia? Hau izanen da bati baino gehiagori loa kendumo dion arazoa.

**ZUNZARREN**  
Gestoria

- Allianz Ras Aseguruak
- Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93  
Amaiur Gaztelua 2  
31700 ELIZONDO

Etiket mugitu gabe ardoa erosi nahi baduzu

- Botilatu eta botilatu gabea
- Markako ardoa...

deitu 45 32 66 Tfnoa.  
**AZPILKUETA**

**Ekisari jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013  
**ELIZONDO**

**OSKORRI LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRE

Nafarrorako egile ofiziala:  
**ONENA Tailerrak**  
Zaldubia Poligonoa, IRURITA (BAZTAN)  
**deceuninck**  
Behar duzuna, PVCn • Tfnoa: 580532

**ttipi-ttapa**  
HAMABOSTEKARIA

**FZ**  
FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

Zure argazkiak berehala errebelatuak eta gainera profesionalen kalitate eta kolorearekin  
**KONPARA ITZAZU!!**

Elizondo Tf: 58 04 91  
Doneztebe Tf: 45 03 64

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

Neska eta mutilendako udako arropa arinak  
Pultsera eta belarritakoak (Zilarrezko, larruzko...)  
Oparitzeko bitxikeriak (abanikoak, musika-tresnak...)

**FOTO MERA ELIZONDO**

Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40  
ELIZONDO

**MENDIALDE Jatetxea**

Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
**AMAIUR Tfnoa: 45 30 00**

Eta orain, zure koloretako argazkiak  
**ORDU BATEZ ERREBELATUAK**  
ditugu



## Ekainaren 2an ospatu ziren jaunartzeak

ALIZIA OLAIZOLA

Ekainaren 2an, Korpus Kristi egunean goizeko 11etan Don Justino jaunak ospatu zuen meza nagusia. Sei haur ziren lehenengo jaunartzea egin zutenak. Patxi Jaurena, Jolanda, Suas, Xanti Villares, Elisabet Pulido, Jenifer Gil, Pedro Reche.

Ohitura den bezala prozesioa ere egiten da egun horrekin baino aurten denborak ez zuten lagundu eta ez zen egin.

### Informacion y Turismo

Nafarroako Gobernuak Iparralderat bidai bat ekainaren 5ean logelak alokatzen dituzten etxe koentzat

antolatu zuen. Urdazubikoek gehienak parte hartu zuten bidai hontan. Dantxarinean errezibiturik Iparralderat joan ziren aunitz herri bisitatuz eta Senpereko lakuan bukatu zuten afari batekin bertako alkatearekin Bonnet jate txean.

### Udala haitzuloen jabe

Leorlas auzoko haitzuloen jabea Jose Antonio Etxenike zen eta orain Udalak hartuko ditu Joxe Antonioren borondatez. Horrela herrian bertan geratzen dira bertzelaz Nafarroako Gobernuarentzat izanen bait ziren. Oraindik ez dira eskriturak eginak baina segur dago.



Urdazubiko Pala Txapelkunak Genaro-Angel eta Amairuko Txapeldu-nordeak, Beñat eta Pello.

### Bertze kinto-besta Armuan

Urdazubin kinto bestaren aldikaria dugu. Ekainaren 8an, 1961eta 1967 artean jaiotakoek beren kinto besta ospatu zuten. 40 lagun bildu ziren afal-

tzera eta ondotik dantzaldia Orabideko Joxe Angelekin. Gauerdia Aldean herriko lagun talde bat agertu zen eta animazio handia izan zen akitu artio Beatrix, Juanma eta Belen lagunekin.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barranean edo ate ondoan eta buruko mine maten baduzue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.



«ZALDUBI»  
SUKALDE  
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta  
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77  
IRURITA - BAZTAN



ARESO

Maiatzaren 26an meza ospatu zen Santa Cruzen

JUANA MARI

Duela urte batzu, berreskuratu egin zen galdutako ohitura bat, horretarako, gogoa eta dirua jarritz.

Urtero, Santa Cruz egunean, maiatzaren 3an, izen bera duen ermitara igotzeko ohitura zegoen. Duela 7 urte ermita berri egin zen, bai teilatua eta baita barrenetik ere. Herriko andreak garbiketa ederra egin zuten eta orduan erabaki zen urtean behin meza ospatzea, Gurutz-Bidea eginez bidean. Aurten eta eguraldi txarra



rengatik, festa txiki hau atzeratu egin behar izan da maiatzaren azkeneko igandera. Halere, egun horretan oso eguraldi ona egin

zuen. Meza bukatu ondoren hamaiketako egitendak, gazta eta nahi adina ardoarekin agertzen diren guzientzat. Aspaldiko ohi-

tura indarrean dago berriro ere.

Herriko uretz

Azkeneko TTIPI-TTAPAN, Aresoko urek duten gusto txarrataz aritu ginen, azken bolada hontan dakarten kloro gustoarengatik. Guk hala uste dugu, baina esandakoak ez du ukatu nahi herrian lan asko egin ez denik uraren zerbitzua hobetzeko. Badakigu hortan aritu dela Udala (30 milioi kostatzen deposita berria) eta Areson, gainera, ura debalde dugula. Hori ere aitortzen dugu!

Uda euskaraz

BARNETEGIAK

Uztaila, Abuztua, Iraila  
MAILA GUZIAK + EGA

NON:

- ALDUDE
- BERA
- DONEZTEBE
- LEITZA
- LESAKA

UZTAILAN EUSKAL HERRIARI  
ITZULIA BIZIKLETAZ  
GOI MAILAKOENTZAT

Telefonoak: (948) 22 22 46 IRUÑEA.  
(948) 63 77 96 LESAKA.  
(945) 28 89 22 GASTEIZ.


KANPO IKASTAROAK

Uztaila, Abuztua, Iraila  
Egunean 4 ordu goizez  
MAILA GUZIAK + EGA

NON:

- BERA
- DONEZTEBE
- LEITZA
- LESAKA

Telefonoak: 45 15 55 DONEZTEBE.  
63 77 96 LESAKA.



Matrikula zaitetz!

Ikastari





## Herri afaria, plaza irikian, San Juan suaren inguruan

ANTTON ERKIZIA

Betidanik sortu du giro berezia San Juan bezperak. Nonnahi, eta Leitzan ere. Lehengo urtean, 400 lagun elkartu ziren afaltzen gau hortan, Leitzako plazan. Aurten ere, eta igande gauetz, beste hainbeste egin asmo da, San Juan bezperako suaren inguru eta giroan, plaza irikian. Kuardrila bakoitzak bere otordua eramanen du, eta Aurterak ezarriko ardoa, kafea, ttantta eta gaiteroak. Eta zapela pasako du.

### Gorritarango bestak

Pestak, non ez. Gorritaran auzoak ere auzo pestak ospatuko du hila honen azken igandean.

### Erroldaren arabera, 3.160 biztanle herrian

3.160 biztanle edo bizi-lagun ditu Leitzako herriak, egin berria den azken errolda edo padroiaren arabera.

### Mediku pediatra

Laister izanen omen da Osasun etxean. Hala hitz eman zuen Azagra jaunak, berriki izandako eskualdeko bileran.

Eta hemengo medikuek

eta erizainek astean ordu batzuz kontsulta Areson bertan ere pasako dute, Leitzera etorri ezin direnentzat.

• **Guardia Civil** batek beste bat tiroz hil zuen, orain berriki, Leitzako kuartelean. Hildakoak 22 urte zituen, eta tiroak burua aldez alde pasa zion. Ofizialki esanenez, istripu bat izan omen zen.

### 16 ekipo futbol txapelketan

“Inguruarte” futbol txapelketa hasi berria da. Bertako hamasei ekipo ariko dira, larunbata eta igandez.

### Guratz-mendik mus txapelketa

VII. Mus txapelketa jokatuko zen Guratz-mendi Elkartearen. J. Irungarai eta C. Godoi izan ziren aurten go txapeldunak. Aramendia (zaki) eta Andres Zabaleta bigarrenak. Denetara hamasei bikote aritu ziren.

### Soka-tira talde berria entrenatzen hasi da

Soka-tira talde on bat osatzekotan dabilza Leitzan. Entrenatzen ere ari dira eta herrian arteko txapelketetan hastekoak datorren udazkenean.



San Juan afaria, plaza irikian aurten



3.160 biztanle ditu Leitzak



Arroka, orroka, soka, borroka.



GOIZUETA

Ia 15 milioi frontoiaren konponketa eta eskoletako gelen berrikuntzaren aurrekontua

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako Gobernua-ren Hezkuntza sailak Udalari jakinarazi dioenez, 14.845.000 pztakoa da eskoletako frontoia eta gela batzuen konponketaren aurrekontua, dirutza hortatik zatirik haundiena frontoian gastatu beharko delarik. Diputazioak dioenez, % 72,5eko subentzia emateko prest omen dago, hau da, 10.726.625 pezeta, baina obra hauek aurrera eramanez gero, beste 4.118.375 pzta. Udalak ordaindu beharko ditu.

Kontzejalen eritziz egoera normal batean portzentai ona bada ere eskeinitakoa, kontutan hartu

behar omen da eskoletako frontoiak dituen akatsak (azpia eta ezker pareta okerrak, ittoxurak...) berria egin zutenekoak direla. Horregatik, dirulaguntza honi ez dio ezetik eman Udalak, baina hezkuntza kompetentziak dagoeneko Nafar Gobernuaren eskutik daudela kontutan hartuz erakunde honek ordaindu behar omen luke osorik konponketa hori.

**Eraitza onak**

VI. Nafarroako Eskolarteko Bertso paper Lehiaketan oso eraitza onak lortu dituzte herriko eskolako haurrek, denen artean 5 sari eskuratu dituztelarik.



Hirugarren mailan, 2. postuan Amaia Lujanbio eta 3. Ibai Ortigosa. Lauugarren mailan, Mikel Etxeberrriak aipamen berezia. Bostgarren mailan, Maitane Lejarreta aranoarrak 2. saria. Seigarren mailakoen artean Iñaki

Loiarte suertatu zen irabazle. Bertso eskolakoek berriz, Nafarroako txapelketatik hainbat sari ekarri zituzten. Lau oinak emanda bapatean kantatzeko lanean Jon Eskudero eskuratu zuen 2. saria, Arantxa Ansa 3. sailkatu zelarik.

**EROSLE**

Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA

EROSKIn zegoen jenero eta promozio berdinarekin eta... Deskuentoak sozioentzat

**Drogeria MOLINERO**



Paperak  
Pinturak  
Moketak  
Drogeria

Tfnoa: 63 02 40  
Eztegara 19  
**BERA**



**MANOLO  
TABERNA**

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,  
Ardoak, Likorrak,  
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA



## EZKONTZAK

**Arantxa Tapia** eta **Pierre Indaburu**, Sarakoak, Ekainaren 1ean.  
**Juan Miguel Salaberria** eta **Fernanda Mitxelena** Goizueta eta Oiartzungoa, Maiatzaren 25ean.

**Juan Carlos Olaetxea Arretxea** eta **Maria Teresa Sanz Ganboa**, Berakoak, Maiatzaren 25ean.

## JAIOTZAK

**Maialen Uitzu Uitzu**, Goizuetan, Ekainaren 9an.

**Hasier Garzia Errandonea**, Beran, Maiatzaren 8an.

**Amaia Izquierdo Agirre**, Beran, Maiatzaren 17an.

**Naiara Trigueros Tomasena**, Beran, Maiatzaren 19an.

**Goretti Zubillaga Goñi**, Leitzan, ekainaren 1ean.

**Maite Bertiz Telletxea**, Maiatzaren 22an, Beintza-Labaienen.

## HERIOTZAK

**Juan Esteban Mazizior Errandonea**, Lesakan, Ekainaren 9an, 66 urte

**Hipolito Etxepare Arostegi**, Lesakan, Ekainaren 9an, 70 urte.

**Leonie Irigoien**, Saran, Ekainaren 3an, 87 urte.

**Extebe Errandonea**, Saran, Ekainaren 2an, 85 urte.

**André Aspirot**, Saran, Ekainaren 10ean, 42 urte.

**Silvia Munilla Irazoki**, Beran, Maiatzaren 29an, 83 urte.

**Jose Juanaberria Franzesena**, NARBARTEN, Ekainaren 4ean, 78 urte.

**Maria Isidora Juanena Mutuberria**, Urrotzen, Maiatzaren 31an, 93 urte.

## ARRANO OSTATUA

*Laister  
Denontzat  
Zabalik*

Legarrea - LESAKA



Galeria Komertzialak, Colon Pasealekua 31, IRUN

ILEA ONGI ZAINTEKO  
HOBEBI EZAGUTU  
BEHAR DA

*FLOREN*

ILEAPAINDEGIA

Kosmetologi  
kabinetearen helbide  
berria hauxe da:

Tfnoa: (943) 619278



## Herrietako maisu-maistrak

*Azpilkueta, Doneztebe eta Etxalarko irakasleekin solasean*



Pello Lizarralde, Azpilkuetako Eskolako irakaslea



Maite Lopez eta Jabier Pinto Doneztebeko Eskolako irakasleak



Luzia Irazoki, Encarna Doval, Junkal Alzuguren eta Kontxesi Arangoa, Etxalarko Eskolako irakasleak

Ezin uka, maisuen egoera ezberdina dela. Postuaren «jabe» direnak, finkoak, eta behinbehineko edo interinoak, probisionalak, zuzendaritzak harat-honat erabiltzen dituenak. Herriko bertako seme-alabak diren irakasleak eta bertze herritatik etorriak. Herritarrak ez izanagatik, herrian bizi dira batzu, herritik kanpo lo egiten dutelarik bertzeak. Euskaldunak, zahar edo berriak, baina erdaldun hutsik ere bada oraindik.

Badu eraginik guzti honek eskolaren zereginean? Nolakoa? Eskola, herri jakin batean, kultura eta egoera xehe batean baldin badago, elkarrekiko zerikusi eta eragina izanen dutela dirudi. Eta irakaslea ezin da alde batera gelditu. Baina ikus dezagun irakasleen beraien ikuspuntua. Segidan ageri diren izenetan badi-tuzu lanpostu fijokoak eta interinoak, herrian bertan eta kanpoan lo egiten dutenak, bertan jaioak ere bai. Euskaldun zaharrak eta berriak.

**ttipi-ttapa.**— Behar du eskolak harreman eta loturarik izan inguruarekin, herria berarekin, eta zer gisatakoa?

**Pello Lizarralde.**— Dударик ez. Gainera herrietan gertatzen dena ez isladatzea edo reflejatzea oso zaila izaten da. Aski da erne egotea, eta irakaslea bertan bizi bada, oraindik hobe.

**Etxalarko taldea:** Kontxesi Arangoa, Encarna Doval, Luzia Irazoki, Junkal Alzuguren.— Bai, noski, eskola gizartearen zati garrantzitsua delakoz. Gure herrian harreman horiek, guraso eta kultur elkarte bidez gauzatzen dira, baita eskolaz kanpoko ekintzetan partehartuz: ipuin lehiaketa, eskulanak, kirolak, antzerkiak...

**Maite.**— Harremanak izan behar dituela, ezin uka, heziketak ikasleen inguruan oinarritu behar bait du; bestela, eskola eta gizartearen arteko lotura galtzeko arriskutan legokeelakoan nago.

**Jabier.**— Dударик gabe. Eskolan giza harremanak orokorrean oso garrantzitsuak dira, eta gure eskolatan helburu hori lortzeko nahi eta nahiezkoa da euskarari bultzada haundiagoa ematea.



**ttipi-ttapa.**— Mesedegarri edo kaltegarria ikusten duzu irakaslea herrian bizitzea? Eta bertako bizimodu eta erreallitatearekin harremanak izatea?

**Pello.**— Oso mesedegarria izaten da, baina ez da eginbehar bat. Bizilagunek asko estimatzen dute bertan laketzen den irakaslea. Hala ere, ez da beti erraza izaten herri ttipi batean bizitzea.

**Etxalarko taldea.**— Mesedegarria da haurrari begira; haurra bera hobeki ezagutu eta lagundu dezakegulako, bere bizimoduaz eta familia giroaz gehiago jakinez. Irakasle aldetik, geure buruak konprometituagoak ikusten ditugu. Nolabait pertsona publikoak garenez, nolabaiteko imajina zaintzen dugu. Horrez gain, herriko seme-alaba baldin bazara, jendeak aisago kritikatzten zaitu.

**Maite.**— Afera honek bere alde ona eta bere alde txarra azaltzen ditu. Alde batetik, ikasle eta gurasoekiko harremanak nolabait finkatzeko positiboa da leku berberetan bizitzea. Bestetik, ordea, independentzia edo askatasuna aldetik, beren bizitzako eremu txiki bat galtzen dutela uste dut.

**Jabier.**— Eskolatan, ikasleek ez ezik irakasleek ere integraturik egon behar dute. Nola lortu? Dudarik gabe, irakasleak herrietan



*Eskolak eta inguruak, batak bertzearekiko harremanak beharrezkoak*



*Bertan bizitzeak baditu zailtasunak*



*Irakasle probisional gehiegi dago Nafarroan*



*Etxebizitza aurkitzea gero eta problema haundiagoa*

biziz hori lortzea errazago da, baina gaur egun maisuentzat herrietan bizitzea gero eta zailagoa da.

**ttipi-ttapa.**— Zein dira herrietan irakasle aldaketak gehiago izatearen arrazoiak?

**Pello.**— Bere antolaketa berezia eta herrien egoera direla-ta, herrietako eskolak «lanpostu zailak» kontsideratuak izan dira, eta normalean interino gazteek betetzen dituzte lanpostu hauek. Horrega-

tik ia urtero tokiz aldatzen dute. Bertan geratzeko asmoa izanagatik, askotan ezin da, herritan ez bait da etxebizitzarik aurkitzen. Honi buruz esan behar da, orain dela zenbait hilabete agertutako lege batean oinarritu dela udal asko, orain arte irakasleei eskainitako etxebizitzak ixteko, eta beraietan zeudenak kanporatzeko. Gutti izan dira irakasleekin akordiotara iritsi direnak. Guzti honek kalte haundiak ekarriko ditu.

**Etxalarko taldea.**— Lanpostu fijoak ez izatea. Interinoak urtero — edo maizago — aldatzen dira. Irakasleak plaza fijoak izan balu, herri berean urte gehiago emanen lituzke.

**Maite.**— Administrazioaren errua da, zalantzarik gabe. Bere politika txarra dela eta, jendeak finkotasunik gabe denbora luzeegia ematen du. Eta, horrez gain, herri ttikitant betirako bizitzea gogorra delako, sarritan familiarengandik urrun egotera beharturik.

**Jabier.**— Alde batetik, Nafarroan irakasle probisional gehiegi dago eta, ondorioz, Delegazioak gehienak urtero aldatu egiten ditu. Beste aldetik, herrietan bizitzea ez da hain erraza, eta lehentxeago edo geroxeago hirira joatearekin amets egiten dugu.

PELLO APEZETXEA



## Sarako Izarra, goren mailako rugby taldea

*Iazkoan, hirugarren seriean Frantziako xapeldun izan ziren*



Saran aspaldikoa da rugbyaren afizioa. 20. hamarkadan hasi ziren jokatzen, baina gogor xamarrak zirela eta jokatzeko debekua jaso zuten. Geroztik, Basurdiak bezala ezagutuak izan dira Saratarrak rugbyaren munduan. Dударik gabe, urtez urte, maila altuagoa lortzen ari da Sarako Izarra.



Lehen taldeak, «Honneur» izeneko mailan jokatu du datorren urtean

### Historiari errepasoa

Sarako Rugby taldea 1972. urtean sortu zen Sarako Izarra Elkartearen gerizpean eta Pierrot Etcheverria, Lastiry ostatuko nagusi gazteak sustengaturik. Lehen partidua Saran bertan jokatu zuten, orain piztina eta errebot berria den lekuan (26-1) galduz.

Dena dela oroitarazi behar da ez zela lehen aldian Saran Rugbya jokatzen zela. 1.920ean ere ezagutu

zen Rugbya Saran, baina ez luzaz, erraiten denaz... bortizki aritu ziren. Ondorioa debekua izan zen eta ez hori bakarrik, hortik aintzina Sarako rugbyariak basurdiak deituak izan ziren. 1974ean, Jean Arrieta eta Mitxu Dutournier arduradun direlarik, arituko ziren lehen aldikotz Euskal Herriko Xapelketan, 4. serie deitzen den mailan (apalena). Lau urteren buruan finalerat ailegatu ziren, Kanboren

aurka galduz. Halere, Frantziako Xapelketa idekirik zuten, honetan, Pirineoko talde baten aurka 16 laurdenetan eroriz.

1981 eta 1982a urte ilunagoak suertatu ziren, izarra beltz, jokalaria gutti eta ondorioak... txarrak. Baina ez pentsa horregatik saratarrek amor emaiten dutenik, Anje Dualdek bere kantu batetan errepikatzen duen bezala «lan eta lan».

### Gaur egun indartsu

«Saran astia» dioen

erran zahar batek ez du arrazoi faltarik. 1987a arte egon behar da basurdeen zalapartak berriz goraitzeko. Urte honetan Sarako Izarra Euskal Herriko Xapeldun-ordea izanen da (Arrangoitze xapeldunaren gibeletik) eta gainera Frantziako Xapeldun-ordea (hirugarren serie).

1990ean, hiru urte geroago, Frantziako xapeldun izanen dira (Bidarteren aurka irabazitako partiduz).





Bigarren taldea, Euskal Herriko xapelketaren final erdietara iritsi zen, bertan Senpereren aurka galdu zuelarik



Rugby eskolan 40 bat haur biltzen dira

Aurten ere ongi jokatu dute eta heldu den urtean «Honneur» deitzen den mailan aritu beharko dute.

Bigarren ekipoak ere lehenaren urratsei jarraitu die eta aurten, Euskal Herriko Xapelketan final erditan Senpereren aurka erori dira.

## Rugby eskolan 40 haur

Rugbyaren geroa segurtatzeko, Larunbatero Añimoineko zelaian 40

haur biltzen ditu sarako Izarra Rugby taldeak.

Taldeak 100 jokalaria biltzen ditu eta azken urte hauetan sari ederrak ekarri dizkio herriari eta bereziki Christian Darochari, azken hamar urteetan Sarako elkartearen lehendakari izan denari.

Lehen urteak itzalean baziren ere, dudarik ez, azkenak iduzkitan daude (izarren bezala).



## Bera Rugby Taldea - Gure Txokoaren aurkezpena

Ekainaren 8an, Bera Bera, Fortuna, Senpere, Urruña, Baztan eta Mutriku taldeekin jokatu erakustaldi torneoan aurkeztu zen ofizialki Bera Rugby taldea - Gure Txokoa. Ansoñeajateketa babesle duelarik, honako hauek osatzen dute taldea: Pello Goesta, zuz. teknikoa; jokalaria: T. Goikoetxea, J.R. Zubie-

ta, J.A. Latorre, J. Iglesias, R. Elgorriaga, J.M. Gorria, C. Goikoetxea, R. Garrido, A. Lasarte, C. Calvo, J.A. Etxeberria, T. Ruiz, J.A. Burgete, A. Burgete, S. Leonis, I. Bergara, M. Biurrarena, M. Irazoki, J.A. Etxeberria, J. Lekuona, O. Goñi, M. Prieto, L.A. Lasarte, J. L. Perez, X. Errandona, G. Castillo, J. M. Aranibar eta I. Sese.

## Hamabostaldiko jokaldiak



**Rafa Maritxalar** lesakar lasterkalaria.

Gipuzkoako junior mailako Kross txapelketan lehenengo postua eta Euskadiko txapelketan bigarren postua lortzea ez da nolana hiko marka.



**Andoni Garbisu** kirolari beratarra.

Hesiak edo "vallak" saltatzeko hobe da arin-arin egotea, bizkarrean 40 kiloko zakuarekin ezinezkoa baita. Ondorioak ikusi bertzela.





**INFORMAZIOA:**

Ezkalo Jauna  
Tfnoa: 45 15 18  
Doneztebe

**DONEZTEBE:**

- 90 m<sup>2</sup>ko pisua egoera onean eta sukalde ekipatuarekin. 7.000.000 hagitx negoziabileak
- Laister, 9.000 m<sup>2</sup>ko pabeloien eraikuntza

**ITUREN:**

- Luxuzko borda bizitzen jartzeko moduan eta 50 m<sup>2</sup> solairuko, kalitatezko materiala, sukalde ekonomikoa, sukalde mogleak, tximinia, bainua, 3 gela, 2 kotxeentzat garajea, 250 m<sup>2</sup>ko jardina, 50 m<sup>2</sup>ko estalpea. Prezio negoziagarria eta trukaketak onartzen dira
- Borda 5000 m<sup>2</sup>ko eremuarekin, urte osoan ura duena eta eguzkitsua. Trukeak ere onartzen dira

**ZUBIETA:**

- 8 pisu eta komertziorako baxuen eraikuntza laister.

**GAZTELU:**

- Borda, eremua, ura eta bidearekin. Prezioarekin moldatuko gera

**ARANTZA:**

- Baserri eta borda 40.000 m<sup>2</sup>ko eremuarekin eta argiarekin.



**NARBARTE:**

- Luxuzko 3 pisu eta komertziorako baxuen eraikuntza laister. Karrika Nagusian, Udaletxearen aintzinean.
- Telleria jatetxea, 2.000 m<sup>2</sup>ko eremuarekin, karretera ondoan. Hirugarren adinakoendako erresidentzi bihurtzeko egokia.

**BERA:**

- Fabrika, 700 m<sup>2</sup> eraikiekin eta karretera generalaren ondoan beste 1.300 m<sup>2</sup>ko eremuarekin. Prezioa negoziagarri.
- Pabeloia alokatzen da. 15'5 m<sup>2</sup> eta 6,50 metro altueran. Agerra auzoan Txantre ondoan. Negoziagarri.

**TORREVIEJA (ALICANTE):**

- Donostia izeneko etxean, 44 apartamentu bizitzen jartzeko baimen ofizialarekin, 1, 2 eta 3 logeletako estudioekin, garajerako plazak eta komertziorako lokalekin. "Playa del Cura y de los Locos"-tik 200 metrotara, 4.180.000 pezetatik aurrera, komertziorako lokalak m<sup>2</sup>ko 120.000 pezetatara eta garajerako plaza 875.000 pezetatara.

• Etxe, baserri, pisu, bajera eta eremuen alokairurako eskari haundia izateagatik, alokairuak eskatzen ditugu.

**EZKALO ETXEAk** besta zoriontsuak  
opa dizue eta uda ederra pasa dezagun  
eskualdeko herri guztietan



## Bigarren mailako derrigorrezko hezkuntza

Bigarren Mailako Derrigorrezko Hezkuntza (BMDH), lau kurtsodituen hezkuntza-aldi berria da. Egungo OHoko bi azken kurtsu eta BBBko lehenengo biak beregan hartu eta oinarrizko heziketaren amaiera suposatuko du. Ikastaldi hau, bi ziklotan banatuko da, lehenengoa 12-14 urte bitartean eta bigarrena 14-16 bitartean. Ikastaldiaren helburuak, kulturaren oinarrizko ezaugarriak igortzea, euren eskubide eta betebeharrei aurre egiteko prestatzea eta langintzarako edota ertain mailako lanbide heziketaren batxilergora iristeko ikasleak prestatzea dira bertzeak bertze.

### Ezagutza alorrak

Bitan banatuko dira, batzuk derrigorrezkoak (enbor emankomuna) eta bertzeak aukerakoak. Enbor amankomunean, hizkuntza eta literatura (eus-kara eta gaztelera), atzerriko hizkuntzak, gizarte



zientziak, geografia, historia, ikus-plastikazko heziketa, matematikak, natur zientziak, teknologia eta erlijioa (zentruentzat derrigorrezko eskeintza eta ikasleentzat aukerakoa) izanen dira, aukerakoak zentruen arabera eginen direlarik.

Etaparen helburuak lortzen dituztenentzat titulo bakarra erabiliko da, Bigarren mailako Heziketan Graduatuarena, hain zuzen. Titulu honek, batxilergoaren edozein motatan eta

Maila Ertaineko Lanbide Heziketan -edozein modulotan- sartzeko aukera ematen du.

### Zenbait galdera

• **Noiz ezarriko da BMDH-a?**

1992-93 ikastaro eskolarrean hasiko da, nahiz eta agian, Erreformaren sarre-ra orokorra urte bat atzera daitekeen.

• **Zein zentrotan irakatsiko da?**

Eritzi orokor modura, BMDH-a bigarren maila

hartzen duten zentrotan irakatsiko da (12-18 urte). Lehenengo zikloa (12-14 urte) egungo OHO zentrotan eman ahal izanen da.

• **Zein titulu beharko da irakasketa hauetan aritzeko?**

Irakasketa hauek emateko lizentziatu, ingeniari eta arkitektoak edota irakaste lanetarako titulazio baliagarria dutenek irakatsiko dute. Irakatsi beharreko arloarekin lotura duten titulatuak ere ariko dira.

• **Zenbat denbora iraun ahal izanen du etapa honek?**

Lehenengo zikloaren helburuak lortu ez dituen ikasleak, bertan urte bat gehiago iraun ahal izanen du, baita 2. zikloko bertze bi kurtsotako edozeinetan ere.

LAMIA TALDEA

# GAI A

OSASUN-DENDA

BELARRAK-DIETETIKA  
EDERGAI NATURALAK

Bittiria 6, Tfnoa: 637410 - LESAKA



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26

LESAKA

## Masaia eta bizkortze ariketak

**Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)**

Astelehenetik ortziratera, 15,30etatik 19,30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA

## LUR APAL

MEKANOTERAPIA  
ZENTROA

BIZKARRA  
ARTRITISA  
ZAINAK  
STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:  
**637011 LESAKA**



# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

• **Ornoz-Mugairen** 2 pisu eder salgai. Prezio interesgarriak. Informazioa 592133 Tfnoan. Catalan-en emazteaz galdetu.

## Lana

• **31 urteko emakume** batek, haur edo adintuak zainduko lituzke 9etatik 2ak arte. Esperientziduna pertsona adintuekin. Dei 631235 telefonora.

• **24 urtetako** minusbalidoak lana nahiko luke, gaueko guarda, telefona hartzeko, etab... (451518).

• **Uda garaian**, Leitza inguruan lan egingo nuke haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 51 00 12.

• **Astean zehar** Gipuzkoan lan egingo nuke. Berdin zait lekua eta lana. Esperientzia daukat haurrekin. Informazio gehiago nahi baduzue deitu: (948) 45 02 03.

## Denetarik

• **Silvia Mazizior**-ekin frantses klaseak hartu nahi badituzu deitu 630108ra.

• **Aziendentzat** belarra erosiko nuke. Guk moztuko

genuke. Tfnoa: 45 15 18.

• **Etxalarren** giltza bere giltzariarekin aurkitu da. Jabeak, 635170ra deitu.

## Salerosketak

• **Ordenadorea** salgai. Inves PCX 10, 3,5eko bi disketerakoa, inprimagailua, WordStar eta mahaia, berri berria.90.000 pzta. Tfnoa:634126, gauez.

• **Bitrina-kamara** bi, harakindegirako salgai. Berriak daude eta merkeak. Tfnoa.: 637872.

• **Ostatuetarako** Rancilio markako kafetera eta ehogailu berri berriak salgai. 637 724 tfnoa.

• **Ontzigarbigailua** salgai, Fagor markakoa. Oso ona. Tfnoa. 637 724.

• **Bajo** baten bila nabil. Soberan baldin daduk deitu gaua aldera. Oso garestia ez zidak interesatzen. Tfnoa: 634036 (Imanol).

• **Esne tanke** bat salgai, ALFA-LAVAL markakoa 445 litrokoa. Kondizio onean dago. Tfnoa: 599176 (Urdazubi).

• **Euskal** artzai txakurkumeak salgai. Tfa:451518

• **Etxe, baserri edo borda** erosiko nuke eskura ordainduz. Tfnoa:305007.

• **Trikitixa** erosiko nuke. Oso merkea, bigarren eskukoa. Tfa:510177.

• **Collie** arrazako txakurkumea salgai. 599218.

• **Setter** inglesa arrazako bi hilabetetako zakurkumeak salgai. Tfnoa: 58 08 37.

• **Ordenadorea** salgai. Amstrad PC 1512 DD, bi disketerakoa eta Open Acces programarekin. Tfnoa: 630359 (Joxean).

## Harremanak

• **Donamariako** Iñaki Baleztenari muxu bat ipurdian bidaltzen dio bere lagun maiteak. Badakizu oso ondo nor naizen.

• **Lesakako** Ikerrentzat: Muxu haundi bat. Admiradora bat.

• **Iruñan** dagoen Maite Perurenari. Hemen ez egonda ere asko maite zitut. (Begi urdin). Leitza.

• **Zubietako** Urkorentzat: Pottoko maitea, muxu bero bat. Maite zaitugu, zure osabak J. Luis eta Juli.

• **Tate** maite zaitut.

• **Aresoko** Jaionerentzat. Ni naiz zure maitea. Txomin.

• **Urdazubiko** Aliziarrentzat, zorionak bere 19 urte betetzean. Bi lagun partez.

• **Iruritako** Kotterentzat goraintziak. Gau ederra igaro genuen, ea noiz ikustean garen berriz. Badakizu lepoan hartu eta segi aurrera. Leitzako Don't worry by happy. Agur terdi.

• **Lesakako** 3 margolariarentzat. Picassok ez zituen hobe eginen. Arte ederretara joan beharko duzue. Zuekin laister lortuko dugu eta hori dena kobratu gabe. Bertze lesakar bat.

• **Lekarozko** zurgin txiki horri. Ezagutu zintudanetik ez dut lorik egin. Zure dantzatzeko moduak liluratu ninduen. Eratsungo zure maitea.

• **Sufizienzia** akitu ondoren maingu utzi duzue Elizondo. Zuen hirugarren hankaren desiran gaituzue. Irailan estrenaturik. Elizondoko 4. Metalentzat.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZIETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188





Rosa Seminario 13  
Tfnoa.: (948) 4504 00  
DONEZTEBE



# AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak





DONEZTEBE

Besta Onak opa dizkizuegu



NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

**ALMACENES ETXANIZ, S.A.**



Lesakako  
Iturria anaiak

Irunen, zure bainurako  
behar dituzun osagarri  
guziak: griferiak,  
manparak, mobleak,  
gres eta zeramikak

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

**IRUN**